

GUADALUPE-KO BIDEAREN FESTA.



Ondarribian Marchoaren 13.^{an} 1887.^{an}

EUSKAL-ERRIA-ren Zuzendari Jauna.

Nere adiskide maitea: Echean daukazkidan biligarroak eta auzoko errechinolak euren chistu eta chorchor zoragarriakin dirudite esan nai didatela: eguna zabaltzen ari da eta alcha bedi, ikusi nai badu izate guzia parretsu, sortaldeko erregeak urtean ziran egunik aundienetan jantzi oi zituzten baña gala galantagoakin apaindua: alcha bedi eta bijoa mendia gora Olearsoronz, aditu nai baditu gure anaien otsezti arrigarriak, egunsentiari diosalka: alcha bedi eta bijoa noizipeiñ zeruronz begira, ikusitzen ote duen ore pillacho baten ertzean aingeru-talde bat zuriz jantzirik, On José Joakin Olo emengo Bikario izandu oroimengarria erdian dutela, euskarazko koplachoak kantari, ainbeste benerazio izandu zion Guadalupeko Ama Birjiña belcheranari: alcha bedi eta bijoa eskerrak ematera Zeruetako Erregiñari, Ondarribiak irichi duelako ainbeste nai zuen kamio erreala mendí bedeinkatu orretara, esker Ayuntamiento edo Batzarre argidotarrari, zeñak begirutzen dizkien aiñ ongi uri onetako guziekiko ondasunai.

Eta egiaz: guchitan zeruargien erregek banatzen ditu bere zillarrezko errañuak aiñ oiezbezela nola gaurko egunsentian; zeren, bere inguruan moldatu diran kolore askotako oro mordoak dirudite, sarjin batean egindako loresortachoak: guchitan aditzen dira gaur beziñ ederki, choka, chepech, choriandra eta beste egazti askoren kantu eztiak: guchitan aditzen dira ainbeste arkumehoren beeak, mošalen irrintziak, chalen orruak, chitoen *pipipiak*, olloen *kokokoak*, ollaškuen *kikirikiak*, ollarren *kukurrukuak*, artzanan zangak, eta artzaien *iji uju* eta kanta gaitzgabeak: guchitan iku-

siko dira Guadalupeko kabi santua eta bere ingurumariak ain galan-ki apainduak nola gaur; eta baserri, soro eta belardiak ere, dirudite apainduak lauso urdiñ me baten bidez, zeña dijoan aitutzen eguzkiak indarra artutzen duen araberan.

Baña batezere guchitan ikusten dana da, Ondarribitarren arpegiak aiñ alegere, berez izan arren alaiak; zeren chiki eta aundiak, zar-gazteak, ezkonberri eta dama galaiak; eta azkenik, erren, maingu, itsu eta zenbat eskale, danak datoz nasiak, batzuek koche panparroietan eta besteak oñez eta ariñ, Hendaya, Irun, Gainchusketa eta mendi-kantal guzietatik, mankutsik, bandera churien antza dutela, Maria-ri alabantzak kantari; zeñaren bitartez libra bai gaitu Aita Betikoak, malkozko ibar onetan arkitu geran perill askolatik. Beste arrotz askoren gañera etorri dira; Gobernadore jauna, gizon errespetagarria, Barroso jauna, Injenieroetako komandantea eta kapitana, eta bide au nola egiñ ikasi zuen Jarauta jauna; eta oen etorrera eleizkizun au onratzera, asko estimatu dute Ondarribitarrak.

Eleiz-osgilleak edo ezkillak asi dira euren soñuak banatzen *tilin talan* jendeari deika; eta asi da bildutzen eleizara; baña nola kabitu ainbeste persona aiñ eremu chikian! nai ta nai ez gelditu bearko dute askok kanpoan; baña, ez dio ajolik: guziok genkigun zer gerta bear zuen, eta aiñ debozio aundiarekin daude kanpoan non barrenen. Irten da Kabildo errespetagarria Ama Birjiñarekin «Ave Maris» kantatuaz kamio errealaren asierara, jarraitzen diolarik Ayuntamentuak eta bildu dan jende guziak, Gobernadore jauna buru dutela; eta bedeinkatu ondorean chupinazo, ziririku eta ezkillen soñu tartean, itzuli dira era berean; eta paraturik bere kabichoan Birjiña Ama, asi da meza. Gorriti jaun maisu abillaren otseziak aditzean koruan, adimendua erne iduki arren, geratzen da bat kordegabe bezela eta arritua Maria-ren arpegiari begira; zeñak, eziñ kontaala argiz ingurutua, zeruan aingeruz bezela, eta galarik ederrenakin apaindua, dirudien dagokigula debozioa diogun umeai eskeintzen bere bitartekotasuna, Jaungoikoa dagoen jargoiaren oñetan.

Igotzen da Bikario jauna pulpitora, eta nola bere itzaldiak diran aiñ egokiak eta goñoak pekatarien biotzak beratzeko, jartzen dira aditzalleak erne, aditu dezaioten itzik galdu gabe. Egiten die ongetorri maitagarri bat bere enzunleai, eta izdunik ederrenak beziñ egoki ematen du aditzera itzerosá guztiz polit batean, nola Ama Birjiña Guadalupekoak autatu zuan mendi muño au Ondarribitarren eskariak aditu eta oen premien erremedioak iristeko: eta denbora artan izandu ziran bezela ume biotz berakoak eleizacho bat egiteko agertu zan tokian benera zezaten, oraingo denboretan ere izandu

dala beste bat kabugabeko debozioa ziona; zeña bai zan On José Joakin Ollo emengo Bikario izandu gogoangarria; eta berari zorko zaizkala mendi santu onetan egin diran obra geienak. Batezere zuela bide zabal bat egiteko deseoa; baña, buka baño lenago eman nai izan ziola Jaunak, bere Ama Santa ainbeste onratzeko egin zituan lanen saria Zeruan; eta aundia izango dala gaurko egunean aren poza, andik begira, kunplitu diralako ark izandu zituan deseo aundiak, eskerrak Ayuntamentu argidotarrari eta lanbide onetan parte artu duten beste ume on askori.

Esan du ere, ez dala sekula egon aserratua Erljioa jakintza eta aurrerapenarekin, baizikan besarkatua untza arbolarekin bezela; eta guziok dakigula zenbat eta alkartuagoa arkitzen dan erri bat, ainbat eta zoriontasun geiago dituela irichiko; zeren, gorrotoa eta alkar ezinikusia gaietzen badira famili edo erri batean, aifñ dala gaitza ongi gobernatzea, non kristal batean isurtzen diran azoge edo zillar bizi tantoak beatzakin bildutzea. Eta beste gauza egoki asko gure animen onerako esan ondoren, bukatu du bere aditzalleak ainbeste miraritu dituen sermoia, uri onen izenean Ama Birjiña Guadalupekoari eskeñiaz bide berri au; eskatzen diolarik izan dedilla Jakoben eskallera bezela, malkozko ibar onetatik Zeruratuko gaituena. Eskatu dio grazia bere Aitaren lege santuan gu bizi erazteko, eriotz on baten ondoren irichi dezagun betiko zoriontasuna.

Meza ondoren sakabanatu da jende guzia, batzuek serorechean bazkaltzera, non jan duten Ayuntamentu, Kabildo, Gobernadore eta gañerako jende arrotz eta erritar askok, famili bateko umeak balira bezela umorerik onenean; eta bazkal ondoan Gobernadorea eta Barroso jauna mintzatu dira chit egoki uri onetako buru eta jendeentzat, eskerrok emanaz guziaz irago dutelako egun on bat guchitan bezelakoa. Besteak zabaldu dira zelaietan euren famili, aide eta adiskideakin, alkarri eskeñiaz jan edanak, Euskal-errian antziñatik oitura dan bezela; eta etzan noski jende pillarik gure Bikario izanduaren oroitzari Aita-Gure bat errezagaberik, jaten asteko denboran; zeren auts biurtu eta eriotz loan soseguz arkitu arren, bizi geran artean gogoan izango degu Guadalupeko Birjiña Amari zion debozio aundiaren bidez, ainbeste lan mendi santu onetan egin zituan apaiz beneragarria; eta danok deseatsen degu allega dedilla len baño len aren ezurak Guadalupeko eleizachora eramateko eguna, bere ize-narekin onra dezan betiko leku santu au, eta ondorengoak izan dezaten ark zuen jaiera Olearsoko Uño kabia eta bere kantalak geroago eta geiago apaintzeko eta deboziorik sutuenarekin onratzeko.

Ikusi ditugu gaur mendi onetan, sekula geiago etzirala igoko

ziotenak, urtez eta erbaltasunez beteak arkitzen ziralako, begietako malkoak chukatuaz Maria-ri eskerrak ematen, irichi dutelako uste etzuten zoriona; au da, deseo zuten bezela agur egitea berak autatu zuan kabi chuloan Guadalupeko Ama Birjiñari, esanaz:—mirari bat dirudi larogei eta geiago urteetan iristea gaur batek senti duen zoriona;—eta gisa onetako beste asko esaera.

Illunabarra da, eta ez da gelditzen emen anima bat; denak dijoaz mendia bera kontentuz beterik, euren echeetako sukak chokoetan kontatzera gelditu diran umeai gaur Guadalupen egin dan eleiz punzio ederra. Guziok izango degu gaurko egunaren oroitza, egiaz; zeren, berdiñ aditu arren Jaunak, non-naitik bere Amaren bitartez egiten zaiozkan eskariak, mendietatik zuzentzen diran otoitzak dirudite dirala beroagoak eta balio aundiagokoak Zerua iristeko.

Zure egiazko adiskidea

OTAEGI-KO KLAUDIO.

